



EUSKARAREN ARAUAK ETA ERABILERAK herri administrazioan, arlo juridikoan eta kriminologiaren esparruan

Kalitatezko testuak egiteko oinarrizko irizpideak

Ander GUTIERREZ GARATE

Helene COLOMO IRAOLA

AURKIBIDEA: I. Sarrera. II. Kalitatezko testuak egiteko oinarrizko irizpideak: 1. Zein dira kalitatezko testuak egiteko oinarrizko irizpideak?. **III. Idazketa-prozesuaren aldiak.** 1. Idatzi aurreko lana: 1.1. Zertarako idazten dugu? 1.2. Nori idazten diogu? 2. Ideiak sortzeko estrategiak. 3. Testuaren antolaketa. 4. Testuaren idazketa: 4.1. Azalpenen argitasuna eta ideien antolamendua. 4.2. Hizkuntzaren zuzentasuna. 4.3. Hizkuntzaren egokitasuna. 4.4. Oinarrizko estilo-irizpideak. 5. Testuaren diseinua. 6. Testuaren zuzenketa. **IV. Kalitatezko testuak egiteko irizpideen lanketa.** 1. Testua diskurtso motaren arabera planifikatu. 2. Informazioa lerroaldeetan antolatu eta garatu. 3. Irakurleari kontzeptuak identifikatzen lagundu. 4. Lagundu irakurleari ideien arteko lotura antzematen. 5. Esaldiak antolatzeko orduan, aukera sintaktiko argienak eta eraginkorrenak erabili. 6. Elementu lexikoak aukeratzean, euskarazko forma jator eta soilenak hautatu. **V. Kontsulta eta informazio-iturri baliagarrien zerrenda. VI. Ondorioak eta gomendioak. Bibliografia.**

I. Sarrera

Lan honen helburua, kalitatezko testuak sortzeko (zuzenak, argiak eta erakargarriak) beharrezkoak diren jarraibideak eta kontuan izan beharreko puntu ezberdinak azaltzea da; bereziki, gramatika, estilo eta diseinuaren ingurukoak.

Lan hau Zuzenbideko lehenengo mailako ikasleei bideraturik dago, testu bat egin behar duten unean jarraibide moduko bat izan dezaten. Bestalde, ikasleen trebakuntza eta formazioa sendotu nahi dugu, graduan zehar eskatuko zaien exigentzia mailara egokitzen joan daitezen. Dena den, oinarrizko kuestio eta zalantzak ere argituko ditugu.

Geure ikuspuntutik, bereziki garrantzitsua da, hasiera batetik, ikasleek kalitatezko testuak idazteko jarraibideak zein diren ezagutzeko aukera izatea, eta hori oinarri, formazioa lortzea. Baina, zer da kalitatea guretzat? Bada, funtsean, testu zuzenak, jatorrak eta egokiak sortzea.

Izan ere, lan honetan zehar aipatuko ditugun aholku eta gomendioak arretaz irakurri eta kontuan hartzeak, etorkizuneko lana erraz dezakeela pentsatzen dugu. Horretaz gain, akademikoki ere kalifikazio altuagoa lortzeko aukera ezin hobea izan daiteke.

Oro har, ikasleoi helarazi nahi dizuegu, idatzi beharreko testua edozein izanik ere, beti izan behar du kontuan oinarrizkoak diren erregela batzuk. Esperientziak erakutsi digu, horrelako jarraibide eta ereduak segurtasuna lortzen dela idazketa-prozesuan, eta hau, ezinbestekoa iruditzen zaigu bereziki lehenengo mailan, aurrera begira, zeuen buruekiko konfiantza lor dezazuen.

II. Kalitatezko testuak egiteko oinarrizko irizpideak





1. Zein dira kalitatezko testuak egiteko oinarrizko irizpideak?

Kalitatezko testuen ezaugarriak formaltasuna, funtzionaltasuna eta argitasuna dira, eta hiru elementu hauen arteko oreka bermatzeko, hainbat estrategia baliatu behar dira. Estrategia hauek, “estilo-irizpideak” izeneko gidalerroetan laburbiltzen dira, eta jarraian, aholku eta irizpide guzti horiek jorratuko ditugu.

Irizpide funtsezkoenak hiru multzotan sailka daitezke:

- Testu zainduak bete beharreko oinarrizko irizpideak
- Testu funtzionalak egiten lagunduko diguten aholku eta baliabideak
- Testu argiak egiten lagunduko diguten aholku eta baliabideak

Esan bezala, beraz, kalitatezko testuak egiteko hainbat irizpide jarraitu behar dira ezinbestean, eta horiek, idazketa-prozesuaren aldiak osatzen dituzte. Hona hemen zerrenda:

- Idatzi aurreko lana (egoera komunikatiboaren hausnarketa)
- Ideiak sortzeko estrategiak (eskema, kontzeptuen bilketa)
- Testuaren antolaketa (barne egitura, antolaketa bisuala)
- Testuaren idazketa (zuzena, zehatza, ulergarria)
- Testuaren diseinua (idazkiaren itxura zaindu)
- Testuaren zuzenketa (idazkia berrikusi eta zuzendu)

Jarraian, beraz, idazketa-prozesuaren aldiak aztertuko ditugu, eta batez ere, nola zaindu komunikazioaren kalitatea horietako bakoitzean¹.

III. Idazketa-prozesuaren aldiak

1. Idatzi aurreko lana

Testu onak idazteko, komeni da alde zuretik kalitatezko testuak euskaraz irakurtzea. Ohikoa da, batez ere jende gaztearen artean, halakorik ez dagoela pentsatzea, baina, salbuespenak salbuespen, euskarara itzulitako liburuak kalitate handikoak izaten dira, esaterako, Dolores Redondo nobela beltzeko idazlearen liburuak².

Aipaturikoa ordea egunero landu beharra dago, euskaraz irakurtzeko ohitura hartu,

¹

http://www.ivap.euskadi.eus/contenidos/informacion/euskalduntze_argit/eu_def/adjuntos/estilo_liburu.pdf (32. Or.)

² http://azpidazki.ehu.es/azpidazki/dokumentuak/Gramatika/Ehureka41_idazteko_gomendioak.pdf



eta behin nahikoa irakurri ondoren, askoz ere errazagoa egingo zaigu euskaraz modu egoki eta argian komunikatzea, hizkuntza maila jasoan eta egokian.

Idatzi aurreko lana alferrikakoa dela pentsatzen dugu sarri, eta ondorioz, aspergarria eta neketsua egiten da askotan. Baina, guztiz beharrezkoa da idazten hasi aurretik egoera komunikatiboaren hausnarketa egitea, eta oinarrizkoak diren galderei erantzutea: zer esan nahi dugu? nori? zergatik? zein da gure asmoa? Hau da, testuaren bidez helarazi nahi dugun mezua zein izango den erabaki behar dugu³.

1.1. Zertarako idazten dugu?

Idazten hasi baino lehen, ondo pentsatu behar dugu zein den idazkiaren helburua. Garrantzitsua da testua zertarako idazten dugun erabakitzea, testuarekin zer lortu nahi hausnartzea alegia. Lan horrekin, testuaren edukia osatuko dugu⁴.

Helburu nagusia beti izango da irakurlearen gain eragina sortzea, beraz, argi izan behar duzue zein den zuen nahia irakurlearekiko eta zer lortu nahi duzuen komunikazioaren bidez. Hau da, zein den zuen asmoa (konbentzitzea, informatzea, proposamena egitea...).

1.2. Nori idazten diogu?

Irakurlea zein izango den jakiteak baditu bere abantailak, garrantzitsua baita testua haren behar edo eskakizunetara egokitzea, izan ere, norbanako bakoitzak bere interesak ditu, eta testuaren egokitzapenak interes horien arabera izan beharko du⁵.

Lehen mailako ikasleen kasuan, oro har, irakaslea izango da hartzailea, eta beraz, haren eskariari erantzutea izango da zuen helburua. Horretarako, kontuan izan beharko duzue zein den eskatu zaizuen lana eta zer den lan horren bitartez lortu nahi duzuen.

Dena den, hartzailea beti ez da irakaslea izango. Izan ere, aholku hauek etorkizunerako ere balio dute, testu formal eta jasoagoak eskatzen zaizkizuenerako alegia, esaterako, gradu amaierako lana edota *Zuzenbidea Ikasten* aldizkarian publikatu beharreko testuren bat.

Aipaturiko egoera horietan, beraz, hartzailea ezberdina izango da, irakurleen eremua zabalduko da, eta hartzaile bakarra izatetik hartzaile talde bat izatera ere pasako da, agian. Ondorioz, hausnarketa soziologikoa egitea egokituko zaizue, kontuan izanik irakurlearen nondik-norakoak, ezaguerak eta jarrerak⁶.

Irakurleak izango duen erantzukizun maila edota ardura kontuan izanik, erabili beharreko tonua ere aldatu egingo da. Izan ere, ez da berdina irakasle bati, gaian aditua den pertsona bati, edota zuen antzera ikaslea den norbaiti zuzentzea. Esaterako, testuaren

³ http://www.ivap.euskadi.eus/contenidos/informacion/euskalduntze_argit/eu_def/adjuntos/estilo_liburua.pdf (33. Or.)

⁴ http://www.ivap.euskadi.eus/contenidos/informacion/euskalduntze_argit/eu_def/adjuntos/estilo_liburua.pdf (33. Or.)

⁵ http://www.ivap.euskadi.eus/contenidos/informacion/euskalduntze_argit/eu_def/adjuntos/estilo_liburua.pdf (34. Or.)

⁶ http://www.ivap.euskadi.eus/contenidos/informacion/euskalduntze_argit/eu_def/adjuntos/estilo_liburua.pdf (34. Or.)



hartzailea aditua bada, ez dugu zertan tonu didaktikoa erabili, eta kontzeptuak eta ideiak ere ez ditugu errepikatuko, bistakoa den zerbait azaltzen ari garela irudituko baitzaio.

Irakurleak duen jarrera zein den jakiteak ere abantaila ekar lezake, eta horren arabera modu batera edo bestera egokitu dezakegu testua. Dena den, batzuetan interesgarria izan daiteke aurkako jarrera duela ikustean, aldeko bihurtzeko, argudio onak erabiltzea⁷.

2. Ideiak sortzeko estrategiak

Oraindik ez gara hasi idazten, baina jada informazio nahikoa dugu horretarako, eta hori oinarri, testua idazteko ideiak sortzeari ekingo diogu.

Egia da, gehienetan, irakasleak berak emango dizuela gaia, baina, esan bezala, beste egoera batean ere aurki dezakezue zuen burua urteak aurrera joan ahala, eta beraz, ez dago soberan honen inguruko aholkuren bat edo beste ematea.

Gainera, ideiak sortzea ez dago soilik gai nagusia aukeratzearekin erlazionatuta, izan ere, hasierako ideia nagusi hori garatu egin beharko dugu, eta garapen hori planifikatzea ere garrantzitsua izango da, testuan zehar haria galdu ez dezagun.

Zenbaiten ustetan, ideiak sortzearen eta eskemak egitearen kontu hau denbora galtze hutsa da, baina, guztia ondo egituratu ezker, testua erredaktatzea benetan lan samurra izango da, are gehiago, idatzi beharreko testua luzea denean. Beraz, aholku moduan, ideia eta kontzeptuen eskema bat egitera animatzen zaituztegu, izan ere, ziurtasunez esan dezakegu, lagungarria dela eta merezi duela.

3. Testuaren antolaketa

Testu mota aukeratzeko orduan ezin dugu ahaztu ulerkorra izan behar duela, eta beraz, informazioa argitasunez adieraztea ahalbidetzen duen moduan antolatuko dugu idazkia. Kontuan izan behar dugu, ongi antolatutako testu batek arrakasta handia izan dezakeela, testuaren haria jarraitzea errazagoa izango den heinean.

Egitura zaindu beharra dago, eta horretarako, izenburuak, azpi-izenburuak, oinoharrak, buletak eta antzeko baliabideak erabiliko ditugu. Aholku moduan, egokia izan ohi da ideia bakoitza paragrafo batean biltzea. Testua mezu osoa da bai, baina, bertan biltzen diren ideia guzti horiek hainbat ataletan banatzea komeni da, azken finean, helburua, testu argi eta ulerkorra idaztea baita⁸.

Testu guztiek dute beren barne-egitura, baina, testuaren konplexutasuna edo luzera kontuan hartuta, egitura hori aldatu egingo da, ez baita berdina bi orrialdeko edota berrogei orrialdeko testu bat idaztea. Azken kasu honetan, azpi-atal gehiagotan banatu beharko dugu idazkia, irakurleak haria galdu ez dezan.

⁷ http://www.ivap.euskadi.eus/contenidos/informacion/euskalduntze_argit/eu_def/adjuntos/estilo_liburua.pdf (35 eta 36. Or.)

⁸ http://azpidazki.ehu.es/azpidazki/dokumentuak/Gramatika/Ehureka42_idazteko_gomendioak.pdf



Testuaren antolaketa bisuala zaindu ezkerro, irakurleari erraza egingo zaio testuaren mezua begirada bakar batean identifikatzea, bai eta paragrafo bakoitzean jorratzen den gaia identifikatzea⁹.

4. Testuaren idazketa

4.1. Azalpenen argitasuna eta ideien antolamendua

Testuak argia izan behar du, ulergarria. Hau da, ideia bakoitza behin irakurtzearekin nahikoa izan beharko luke adierazi nahi duguna ulertzeko. Argia izateak, ordea, ez du esan nahi hizkuntza maila jaitsi behar denik, izan ere, eta batez ere zuzenbidearen alorrean, hitz tekniko asko erabili beharko ditugu.

Hitz tekniko horien erabilera txarrak ulergaitza bihur lezake testua, eta hori dela eta, beharrezkoa da ideiak modu argian antolatu eta adieraztea.

Testuan biltzen diren ideiek elkarrekiko lotura izan behar dute, nolabaiteko konexioa, eta jarraian, helburu hau lortzeko hainbat estrategia aipatu eta azalduko ditugu.

Estrategiak:¹⁰

- Informazioaren hurrenkera zentzu logikoan eman
- Ez nahastu testu motak
- Testu-antolatzaileak erabili
- Esaldi laburrak erabili
- Hiztegia hartzailearen beharretara egokitu
- Hitz ezagunak erabili
- Ezezko bikoitza duten esaldiak saihestu

4.2. Hizkuntzaren zuzentasuna

⁹ http://www.ivap.euskadi.eus/contenidos/informacion/euskalduntze_argit/eu_def/adjuntos/estilo_liburua.pdf (43. Or.)

¹⁰ http://azpidazki.ehu.es/azpidazki/dokumentuak/Gramatika/Ehureka32_idatzizko_testuak_errazten.pdf
http://azpidazki.ehu.es/azpidazki/dokumentuak/Gramatika/Ehureka33_idatzizko_testuak_errazten.pdf



Garrantzitsua da erabiltzen dugun hizkuntza zuzena izatea, hau da, Euskaltzaindiaren arauen arabera. Jadanik Unibertsitatean zaudete, eta bertan, akats gramatikalak ez daude ondo ikusiak, hizkuntza menperatzen duzuela ondorioztatzen baita.

Interneten hiztegi sorta handia dago, bai eta beste baliabide mota batzuk, hizkuntzaren zuzentasuna zaintzeko, eta beraz, esan gabe doa erabili egin behar direla. Hona hemen baliagarriak izan dakizkizuekeen baliabideetako batzuk:

Hiztegi elektronikorokorrak:

- Elhuyar Hiztegia: <https://hiztegiak.elhuyar.eus>
- Zehazki Hiztegia: <http://www.ehu.es/chg/zehazki/>
- Labayru Hiztegia: <https://hiztegia.labayru.eus/?locale=es>
- 5000 Hiztegia: <http://www.bostakbat.org/azkue/>
- Egungo Euskararen Hiztegia: <http://www.ehu.es/eh/>

Gramatika-zalantzak argitzeko baliabideak:

- EHUTSI: <http://www.ehu.es/chutsi/>
- Sareko Euskal Gramatika (SEG): <http://www.ehu.es/seg/>
- Kalkoen Behatokia: <http://www.ehu.es/chg/kalkoak/>
- Euskaltzaindiaren arauak:
http://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_euskaltzaindiarenarauak&view=frontpage&Itemid=424&lang=eu

4.3. Hizkuntzaren egokitasuna

Testuan zehar erabiliko dugun hizkuntza mailak egokia izan behar du, hau da, gramatikalki zuzena izateaz gainera, testuinguruarekiko eta hartzailearekiko ere aproposa izan behar du. Egokitasuna beraz, elementu aldakorra da, eta ez dugu ahaztu behar, idazten dugunaren bitartez eragin bat izan nahi dugula hartzailearengan¹¹.

Komunikazio egoera bakoitzak, beraz, bere egokitasuna du, eta une bakoitzean hizkuntza egokia zein den identifikatu eta hura erabiltzea izango da gure lana. Ikus dezakezuen, hauxe da hartzailea nor den jakiteak izan dezakeen abantaila bat.

¹¹ http://azpidazki.ehu.es/azpidazki/dokumentuak/Gramatika/Ehureka35_kalitatea.pdf



Aipaturikoa hizkuntzaren egokitasuna baldintzatzen duen faktoreetako bat da, baina, ez bakarra. Hala, idazlearen maila ere kontuan hartu beharko dugu. Edonola ere, faktore hauen eta beste hainbaten arabera neurtuko da testua egokia den ala ez.

4.4. Oinarrizko estilo-irizpideak

Arestian, testuaren argitasuna aipatu dugu, eta horrek, estiloarekin du zerikusia. Hala bada, estiloaren inguruko hainbat gomendio emango ditugu jarraian.

Ohartuko zaretenez, gomendio horietako batzuk, aurreko puntuan aztertutakoen berdinak dira, izan ere, kalitatezko testuen ezaugarri ezberdinek elkarrekiko lotura estua dute, eta denek ere, testuaren ulergarritasuna dute helburu.

Hona hemen estilo-irizpide oinarrizkoenak¹²:

- Erabili hitz laburrak eta ezagunak
- Egin esaldi laburrak
- Hizkera konkretua erabili
- Ez erabili kalko okerrak
- Errepikapenak bere neurrian
- Erabili testu-antolatzaileak
- Jarri aditza leku logikoan
- Tipografia aberatsa erabili: zenbakiak, letra lodia, etzana...
- Lokailuak erabili

Aipaturikoez gain, badaude azalpen luzeago eta sakonago bat merezi duten hainbat estilo gomendio, batez ere, testua erabat belzten duten ohiturekin erlazionatuta daudenak.

Ohikoa izaten da, esaterako, esaldiak alperrik puztea, hau da, behar den informazioa baino gehiago txertatzea, guttiz alferrik. Ondo dago esaldiak jantzi nahi izatea, baina, ez dugu ahaztu behar helburua ideiak argi eta labur azaltzea dela.

¹² http://azpidazki.ehu.es/azpidazki/dokumentuak/Gramatika/Ehureka18_%20estiloa.pdf

III. Ikasleen ekarpenak



Bestalde, forma pasibo eta inpersonalak saihestea komeni da. Esaldi pasiboek egilea eta hartzailea ezkututzen dituzte eta, beraz, ematen duten informazioa mugatuagoa da. Gainera, oro har, esaldi luzeak izaten dira. Horregatik, esaldi aktiboak erabiltzea gomendatzen da, subjektuaren eta objektuaren arteko erlazioa argitzen baitute.

Saihestu beharreko beste formuletakoa bat ezezko esaldiena da. Esaldiak baiezkoan idazten baditugu, hartzaileak errazago ulertuko du adierazi nahi duguna, eta indar handiagoa hartuko du alde positiboak. Modu honetan, hartzaileari argiago geldituko zaio zer den egin behar, edota egin daitekeena.

Azkenik, atzerakargaren arazoa dugu, hau da, informazio nagusia amaieran jartzea. Arazo hau bereziki nabarmena da testu luzeak idazterako orduan. Askotan, atzerakarga izugarria jartzen diegu esaldiei, hauek erabat korapilatuz eta mezuaren informazio nagusia ezkutatu, edota behintzat, identifikatzeko zaila eginez.

Esaldi baten mamia bukaerarako uzten badugu, hartzaileak ez du jakingo zertaz hitz egiten ari garen esaldia amaitu arte, eta honek testuaren argitasuna oztopatuko du.

Honako aholku edo estrategiak baliagarriak izan daitezke atzerakarga saihesteko:

- Esaldiak moztu
- Subjektua eta aditza elkarrengandik hurbil jarri
- Aurreratu aditza galdegaia denean

5. Testuaren diseinua


Jadanik aipatu dugu testuaren antolaketa bisualak baduela bere garrantzia, bai eta kalitatezko testuen xedea eragina sortzea dela. Beraz, eraginkorrak izateko bide horretan, testuaren diseinua zaindu beharra dago, testua erakargarria bihurtzeko helburuarekin.

Diseinua aipatzean, idazkiaren itxurari egiten diogu erreferentzia, eta hau zaintzea beharrezkoa da. Izan ere, nahiz eta testuaren edukia egokia izan, idazkiaren aurkezpenean hanka sartzen badugu, hartzailea ez da hasiko gogo onez irakurtzen, edo zuzenean, atzera botako du eta ez du irakurri ere egingo.

Tipografia eta testuen diseinuari dagokionez, hona hemen irizpide-funtsezkoenak¹³:

- Marjinak: orrietan 2,5 eta 3cm-ko tartekak utzi behar dira, gutxienez, bai goiko eta beheko aldean, bai alboetan.
- Orrialde-zenbakia: testua luzea denean orrialde zenbakia jartzea komeni da.
- Letra-iturria: oro har, *Times New Roman* erabiltzea da egokiena.

¹³ http://www.ivap.euskadi.eus/contenidos/informacion/euskalduntze_argit/eu_def/adjuntos/estilo_liburua.pdf (191. or eta hurr.)



III. Ikasleen ekarpenak



- Letra-neurria: testu laburretarako, *Times New Roman* 13; testu luzeetarako, *Times New Roman* 12.
- Paragrafoak: paragrafoka idazteak ideiak modu ordenatu eta argian adieraztea ahalbidetzen du.
- Zerrendak: zerrendak egitea baliagarria da kontzeptu ezberdinak nabarmentzeko eta testua arintzeko.

Dokumentuaren egiturari dagokionez, berriz, hona hemen jarraitu beharreko oinarritzko eskema:

- Azala
- Aurkibidea
- Gaiaren garapena
- Bibliografia

Eskema hau da hein handi batean lehen mailako ikasleek jarraitu beharko duzuen, izan ere, testu konplexuagoek, egitura konplexuagoa jarraitzen dute.

6. Testuaren zuzenketa

Idazketa-prozesuaren azken fasea da testuaren zuzenketa, baina, ez horregatik garrantzia gutxien duena. Testua hartzaileari bidali aurretik zuzentzen ez badugu, ordura arte eginiko lana alferrikakoa izango da.

Aberasgarria izan daiteke hirugarren pertsona batek zuzentzea gure testua, baina, oro har, graduan zehar, norberak egin beharko duen lana da hau. Dena den, badaude eginkizun hau arintzeko hainbat estrategia, eta horietako bat, geure buruari idazketa-prozesuaren aldien inguruko galderak egitearena da. Esaterako: ideiak argiak dira? Testuaren antolaketa egokia da? Hizkuntza zuzena da?¹⁴

Horretaz gain, ez ahaztu zuzentzaile ortografikoa pasatzea. Bereziki baliagarriak dira, eta ordenagailuan instalatuta ez baldin badituzue ere, online bertsioak erabili ditzakezue. Gure apustuak, HOBELEX eta XUXEN dira:

- HOBELEX: <http://www.uzei.eus/es/hobelex/>
- XUXEN: <http://xuxen.eus>

IV. Kalitatezko testuak egiteko irizpideen lanketa

Orain arte, kalitatezko testuen ezaugarriak azaldu eta aztertu ditugu, baina, jakin badakigu informazio asko dela, eta jarraian, azalduko sistematizatzen saiatuko gara. Hona hemen kalitatezko testuak sortzeko irizpide-funtsezkoenen zerrenda:

¹⁴ http://www.ivap.euskadi.eus/contenidos/informacion/euskalduntze_argit/eu_def/adjuntos/estilo_liburua.pdf (235. Or eta hurr.)



- Hartzailearen soslaiak kontuan hartu
- Testuaren edukia ondo aukeratu
- Testua diskurtso motaren arabera planifikatu
- Informazioa lerroaldeetan antolatu eta garatu
- Irakurleari kontzeptuak identifikatzen lagundu (kohesioa zaindu)
- Lagundu irakurleari ideien arteko lotura antzematen (konexioa)
- Esaldiak antolatzeko orduan, aukera sintaktiko argienak eta eraginkorrenak erabili
- Elementu lexikoak aukeratzean, euskarazko forma jator eta soilenak hautatu

Horien artean, badaude, geure aburuz, bereziki kontuan hartzeko batzuk eta, jarraian, testu argiak egiteko bereziki interesgarriak iruditzen zaizkigun irizpideak azaldu eta aztertuko ditugu.

1. Testua diskurtso motaren arabera planifikatu

Bereziki garrantzitsua da gure ustetan, ezer baino lehen, idatzi beharreko diskurtso-mota zein izango den argi izatea. Izan ere, argitasuna lortzeko asmotan, ezinbestekoa da testua aukeraturiko diskurtsora egokitzea, eta beraz, kasu bakoitzean, teknika egokiena aukeratzeko ahalegina egin beharko dugu. Hala, diskurtso bakoitzaren eskakizunetara egokitzen bagara, argi eta garbi jakingo dugu zein testu mota idatzi nahi dugun.

2. Informazioa lerroaldeetan antolatu eta garatu

Irizpide honek testuaren antolaketari egiten dio erreferentzia, guztiz beharrezkoa informazioaren haria jarraitu eta edukia ondo ulertzeko. Irizpide hau bereziki garrantzitsua iruditzen zaigu, izan ere, lerroalde bakoitzean ideia bat adierazten denez, egokia da puntu bakoitza lerroalde ezberdinetan banatu eta, ondoren, horietako bakoitza jorratzea.

Beraz, gomendagarria da, lerroalde bakoitzean ideia nagusi bakarra adieraztea, baina, argi izan behar dugu aholku bat besterik ez dela. Hau da, testuak berak eskatuko digu lerroalde bakoitzean ideia bat edo gehiago jaso, edota ideia bat hainbat lerroaldeetan garatu.

Funtsean, lerroaldeak, honetarako balio digu: gaiaren puntu ezberdinak adierazteko, aldeko eta kontrako iritzia ezberdintzeko, ideia nagusiak bereizteko, ordura arte esandakoa laburbiltzeko edota borobiltzeko.

3. Irakurleari kontzeptuak identifikatzen lagundu (kohesioa zaindu)

Irizpide honek, irakurleari kontzeptuak identifikatzen laguntzea proposatzen digu, eta honi, kohesioa deritzo. Kohesioaren helburua, beraz, testuan zehar agertzen diren kontzeptuak irakurleari modu egokian helaraztea da. Hona hemen kohesioa zaintzeko baliabide edota kontuan hartzeko aholku batzuk:



- Erreferentziak zehaztasunez egin
- Ondo bereizi lehen, bigarren eta hirugarren mailako erakusleak
- Testua arindu informazio-elementuak bereiziz eta errepikapenak saihestuz

4. Lagundu irakurleari ideien arteko lotura antzematen (konexioa)

Aipaturikoaren harira, irizpide honetan, irakurleari ideien arteko lotura antzematen laguntzeak duen garrantzia azpimarratzen da, konexioa alegia. Honetan ere, badaude lan hori lortzen lagunduko diguten hainbat baliabide:

- Ez idatzi modu telegrafikoan
- Erabili lotura egokia
- Ez errepikatu beti lotura bera

5. Esaldiak antolatzeko orduan, aukera sintaktiko argienak eta eraginkorrenak erabili

Irizpide hau, esaldi argi eta ulerkorrek egitera bideratua dago, garrantzitsua, beraz, testu argiak idazterako orduan. Esaldi bat asko korapilatu daiteke soilik hitzen hurrenkera aldatuta, eta beraz, bereziki baliagarria iruditzen zaigu irizpide hau ondo menperatu eta baliatzea, testua eduki aldetik egokia izateak ez baitu zertan zerikusirik izan hura ulertzearekin.

Esaldi laburrak erabiltzeak abantailak ditu bai idazlearentzat, ideia garrantzitsuenak azpimarratzen lagunduko diolako, bai irakurlearentzat, datuak gogoan hartu eta testuaren haria erraz jarraitu ahal izango duelako.

Esaldiak laburtzeko aholkuen artean, honako hauek iruditzen zaizkigu baliagarrienak:

- Ideia bat esaldiko
- Informazio nagusia hasieran
- Puntuazioaren erabilera
- Argitasuna

Esaldi luzeak egitearen atzetik, batzuetan, modalizazioaren inguruko kontu bat egon daitekeela deritzogu. Izan ere, oso ohikoa da testu edota esaldiak euskarara itzultzerakoan, gaztelaniako ereduaren pentsatzea, eta ondorioz, euskarazko bertsio desagokoa idaztea. Hau saihesteko modua, une oro, euskarazko forma egokietan pentsatzea da.

6. Elementu lexikoak aukeratzean, euskarazko forma jator eta soilenak hautatu



Irizpide hau arestian aipaturikoarekin erlazionatu ezkerro, antzekoak direla ohartuko gara. Hemen ere ideien ulergarritasuna bilatu nahi da, oraingo honetan sinpletasunaren bitartez. Sarri, testu profesionalak sortzea konplexutasunarekin lotzen dugu, baina, ez du zertan horrela izan. Irakurleak eskertzen duena testua ulerkorra izatea da, euskara formala erabiltzeaz haratago.

Nahiz eta irizpide guztiak kalitatezko testuak sortzeko interesgarriak eta baliagarriak diren, testuaren argitasunari begira hauek iruditu zaizkigu egokienak. Dena den, gainerako irizpideak ezin dira alde batera utzi, argitasunaz gain beste elementu batzuk ere kontuan izan behar baititugu.

V. Kontsulta eta informazio-iturri baliagarrien zerrenda

- IVAPeko estilo-liburua: http://www.ivap.euskadi.eus/contenidos/informacion/euskalduntze_argit/eu_def/adjuntos/estilo_liburua.pdf
- AZPIDAZKI: <http://azpidazki.chu.eus/azpidazki/default.aspx>
- Zalantza Dantza: http://www.ivap.euskadi.eus/contenidos/informacion/euskalduntze_argit/eu_def/adjuntos/Zalantza-dantza2.pdf
- Galdezka: http://www.ivap.euskadi.eus/contenidos/informacion/euskalduntze_argit/eu_def/adjuntos/Galdezka1.pdf
- DUDANET: <https://apps.euskadi.eus/r61-v50001x/eu/v50aWar/comunJSP/v50acambioIdioma.do?v50aCgaIdioma=eu>
- Justizia Sailaren estilo-fitxen bilduma: <https://www.justizia.eus/liburutegia/euskara-eta-justizia-2>
- EIMAREN estilo-liburua: http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/r43-573/eu/contenidos/informacion/dih/eu_5490/estilo_liburua_e.html
- Eusko Legebiltzarraren estilo-liburua: <http://www.parlamento.eus/portal/eu>

VI. Ondorioak eta gomendioak

Jada ikasi dugu testu profesionalak egiterako orduan hainbat gauza izan behar ditugula kontuan, bai eta helburua, ulergarritasuna eta argitasuna lortzea dela. Hala bada, testu profesionalak gutxieneko egokitasun batekin idatzi nahi izan ezkerro, beharrezkoa zaigu irizpide hauetako bakoitza ezagutu eta jarraitzea.

Lan honetan zehar aztertu ditugun irizpideak ez daude soilik zuzenbidearen edota justiziaren alorrera bideratuta. Azaldutako guztiaren oinarrian dagoen ideia nagusia, lanaren planifikazioa da, idazten hasi aurretik hainbat gauza kontuan izatea alegia.

Beraz, testu bat idaztea agintzen zaizuen bakoitzero, pentsatu zein den zuen helburua eta nori zuzenduko zareten, egin eskema bat burura etorri zaizkizuen ideia guztiekin, eta behin lana ondo antolatuta, ekin idazteari. Agian, denbora galtzea dela pentsatuko duzue, baina, antolaketa on bat, kalitatezko testu bat idaztearen giltza izan daiteke.





Ez dugu ahaztu behar, halaber, euskarak arlo juridikoan duen presentzia eskasa. Dena den, bada egoera honi amaiera emateko bidea, hain zuzen, testu profesionalak euskara maila jantzi eta egokian idaztea. Honela, gure lana mirestua izateaz gainera, arlo juridikoan euskarari atea irekitzeko balio izan dezake, eta dakigunez, eman beharreko pauso bat da.

Bibliografia

ARAKAMA, Jose Mari, ARRIETA, Aintzane, LOZANO, Joseba, ROBLES, Josemari, eta URRUTIA, Rosa Mari (2009): *IVAPeko estilo-liburua*, Ed. Herri-Ardulararitzaren Euskal Erakundea (IVAP), Zarautz.

ERKOREKA, Josu, LOZANO, Joseba, MATEO, Miren, eta AGIRRE GARAI, Jon (1994): *Hizkera argiaren bidetik*, Ed. Herri-Ardulararitzaren Euskal Erakundea (IVAP), Oñati.

URRUTIA, Rosa Mari, eta EIZAGIRRE, Jexux: *Argiro idazteko proposamenak eta ariketak (testugintza)*, Ed. Herri-Ardulararitzaren Euskal Erakundea (IVAP).

GOROSTIZA, Aitor, eta TELLERIA, Alberto: *Argiro idazteko proposamenak eta ariketak (estilo arazoak)*, Ed. Herri-Ardulararitzaren Euskal Erakundea (IVAP).

Euskal Herriko Unibertsitatea. *Azpidazki*. Eskuragarri:
<http://azpidazki.ehu.eus/azpidazki/moduluak/gramatika/gramatika.v2.aspx?id=28&locale=eu-ES>